




Giza eskubideak eta inpunitatearen aurkako borroka Hondurasen



Comité de Familiares de Detenidos
Desaparecidos en Honduras



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
HEGOA UNIBERTSITATEA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Argitalpen hau *Fortalecimiento de defensoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación con enfoques de género y local-global. Intercambio de aprendizajes, formación y creación de recursos pedagógicos* (PRO-00342022K3-0021) proiektuaren esparruan egin da.

Finantzatzailea:



Izenburua: Giza eskubideak eta inpunitatearen aurkako borroka Hondurasen

Koordinazioa: Irantzu Mendia Azkue (Hegoa) eta Bertha Oliva (COFADEH)

Argitaratzaileak:



504b Barrio La Plazuela

Avenida Cervantes, Tegucigalpa, Honduras



hegoa@ehu.eus

www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre, 81

48015 Bilbao

Tel.: (34) 946 01 70 91

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza, 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: (34) 943 01 74 64

UPV/EHU

Koldo Mitxelena Biblioteka

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: (34) 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

Disenatzailea eta maketatzailea: Marra, S.L.

ISBN: 978-84-19425-37-9

2024



Este documento está bajo una licencia de Creative Commons. Se permite copiar, distribuir y comunicar públicamente esta obra con libertad, siempre y cuando se reconozca la autoría y no se use para fines comerciales. No se puede alterar, transformar o generar una obra derivada a partir de esta obra. Licencia completa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Desagertze behartua Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren inplementazioan zehar	5
2.1. Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren esparrua	5
2.2. Desagertze behartuko ereduak	7
3. Giza eskubideen urraketak 2009ko Estatu-kolpean eta 2017ko hauteskunde osteko krisian	9
4. Zigorgabetasunezko eta militarizazioko historia	12
5. Giza eskubideen mugimenduak sustatutako aurrerapausoak egiaren, justiziaren eta erreparazioaren arloan	14
6. Ondorioak	16
7. Bibliografia	17

1. Sarrera

Honako dokumentu hau Hondurasko COFADEH Atxilotu-Desagertuen Senideen Batzordeak eta Hegoa Institutuak (Euskal Herriko Unibertsitatea) egin dute. Bere helburua Hondurasko giza eskubideen egoera aztertzen eta zabaltzen laguntzea da, herrialdearen azken urteetako historian gertatutako bortxazko desagertzeei arreta berezia eskainiz. Eginkizun horrek, bada, etengabeko jarraipena eskatzen du, giza eskubideen urraketek eta zigorgabetasunak indarrean jarraitzen baitute. Metodologikoki, lan hau txostenak, testu akademikoak, prentsa-oharrak, dekretuak eta beste iturri batzuk aztertzean oinarritu da, ikerketa dokumental baten parte gisa.

Ikerketa, beraz, Segurtasun Nazionalaren Doktrina Hondurasen inplementatzeko testuingurutik abiatzen da. Izan ere, inplementazio horretan zehar, Estatuak giza eskubideen urraketa larriak egin zituen, hala nola desagertze behartuak eta gizateriaren aurkako beste krimen batzuk. COFADEH, bere aldetik, 1982an sortu zen, Estatuak atxilotutako-desagertutako pertsonen senideen ekimenez, eta batez ere emakumeek osatzen dute. Sortu zenetik, erakundeak egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak lortzeko eta biktimen memoria aintzat hartzeko lan egin du. Hala ere, denboraren poderioz, erakundeak bere jardueraren eremua zabaldu du, giza eskubideak edozein urraketa aurrean defendatzeko, eta aliantzak ezarri ditu beste gizarte mugimendu eta borroka batzuekin. 1980ko eta 1990ko hamarkadetan izandakoez gain, testuak giza eskubideen urraketa-ziklo berriagoak ere aztertzen ditu; hain zuzen ere, 2009an Manuel Zelaya presidentearen aurka egindako Estatu-kolpearen eraginez gertatutakoak eta 2017ko hauteskunde-iruzurraren ondorengo errepresioa.

Aipatutako aldietan egindako giza eskubideen urraketak argitzeko txostenek –instituzioek zein gizarte zibileko erakundeek egindako horiek–, aurkikuntzak ez ezik, gomendioak ere ematen dituzte; hain zuzen ere, biktimen eta gizartearen eskubideak errespetatzen dituen egia, justizia eta erreparazioko eta ez errepikatzeko agenda bat ezartzen lagunduko dutenak. Hala ere, Hondurasen ez dago politika publikorik arlo horretan. Aitzitik, ikusiko dugun bezala, zigorgabetasuna finkatu egin da, eta herrialdeak urteak daramatza Indar Armatuari eta segurtasun militarizatuari bideratutako aurrekontua handitzen.

2. Desagertze behartua Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren implementazioan zehar

2.1. Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren esparrua

Hondurasen, Segurtasun Nazionalaren Doktrina (aurrerantzean SND) hainbat hamarkadaz inplementatzearen ondorioz, Estatuaren egiturek giza eskubideen urraketa larriak egin zituzten. Horiek zigorrik gabe jarraitzen dute gaur egun ere. Honela defini dezakegu SNDa: "ideologia bat, zeinaren bitartez, Estatu Batuek, Bigarren Mundu Gerraren ostean, beren nagusitasuna finkatu zuten Latinoamerikako herrialdeetan, Gerra Hotzari aurre egin zioten, indar armatuei eginkizun zehatzak eman zizkieten eta eskuineko pentsamendu politikoa sustatu zuten eskualdean. Ideologia gisa, hura munduari buruzko ikuspegi bipolar batetik sortu zen. Horretan, mendebaldeak, Estatu Batuak buru zituela, ongia irudikatzen zuen, zibilizazioa, demokrazia eta aurrerabidea; garai hartako Sobietar Batasunak, aldiz, gaizkia, atzerapena eta diktadura" (Velásquez Rivera, 2002: 11). Latinoamerika mundu mailako komunismoaren aurkako gerran zegoela eta hura edozein lekutatik sartzen zela aitzakiatzat hartuta, Doktrinak erabaki egin zuen eraso kanpotik zein barrutik etor zitekeela. Hortaz, jarduera indibidual zein kolektibo guztiak nazioaren aldeko edo aurkako gerra-ekintza bilakatu ziren (Velásquez Rivera 2002: 13-14).

Esparru horretan, AEBek aliantzak ezarri zituzten herrialdeko Indar Armatuekin eta eliteekin, eta entrenamendurako base militar gisa erabili zuten Honduras, armez eta baliabidez hornitzeko, eta, azken finean, Erdialdeko Amerikako iraultza prozesuen aurrerabideari aurre egiteko, batez ere El Salvadorren, Guatemalan eta Nikaraguan.

Leticia Salomón ikertzailearen esanetan, Hondurasko SNDa argiago gauzatu zen 1982tik aurrera, baina bere garapenean lau une historiko identifikatzen ditugu, 1. taulan laburbiltzen dugun bezala.

1. taula. Segurtasun Nazionalaren Doktrina Hondurasen aplikatzeko prozesuaren une historikoak

Lehenengo aldia: 1960ko hamarkada	SNDa sozializatzeko eta Indar Armatueta barneratzeko lehen fasea. 1954an Jacobo Arbenzen erorketa Guatemalan eta 1959an Kubako iraultza eragin zituzten gertakarien ondorio izan zen lehenengo olatu hura. Indar Armatuak SNDan sistematikoki doktrinatzan hasi ziren, eta 1963ko urriaren 3an praktikan jarri zuten ikasitakoa.
Bigarren aldia: 1970ko hamarkada	1969an, Hondurasen eta El Salvadorren arteko gerra hasi zen. Hala, Indar Armatuak gerran izandako porrotaren ondorioz, kanpo defentsa lehentasun bilakatu zen, barne defentsaren orde. Etsaia ez zen ideologikoa izango, baizik eta politiko-militarra, eta, gainera, kanpokoa.
Hirugarren aldia: 1980ko hamarkadaren hasiera	Iraultza sandinistak 1979an lortutako garaipenaren ondorioz, SNDa berpiztu zen. Etsaia, berriz ere, barnekoa eta ideologikoa izango da. Ondorioz, defentsaren lehentasuna barnekoa izango da berriz ere; eta helburua subertsioaren barne-kanpo lotura haustea, hau da, El Salvadorreko mugimendu iraultzaileari laguntzeko kanal logistikoak etetea. 1981etik aurrera "metodo argentinarra" aplikatzen hasi ziren sistematikoki (kartzela klandestinoak, atxilotuak desagertzea, agintariek gertatutakoan parte hartu dutela ukatzea, etab.).
Laugarren aldia: 1982tik aurrera	SNDaren inplementazio osoaren fasea. Barneko etsaiari egokitzen zioten "arriskugarritasuna" handiagotu zuten, eta hura kanpoko etsaiarekin lotu zuten, biak nahastera arte ere. "Etsaia", bada, bakarra zen. Halaber, defentsak barne-kanpo kontraesana baztertu, eta bakar gisa aurkeztu zuen bere burua: mendebaldeko sistema kristauaren defentsa. Eraso komunista zuzena eta hurbila zen (Nikaragua), eta SNDa gizartean zabaltzen hasi zen: Indar Armatuak, Gobernuak eta herritarrek SNDa sostengatzen duen hirukotea osatzen zuten. Doktrinaren inplementazioa areagotu zen, eta Indar Armatuak kontrol absolutua hartu zuten, 1982an Gustavo Álvarez Martínez horien buru bilakatzearekin batera. Aldi berean, Roberto Suazo Córdovaren gobernu eratu zen. Hiru brigada militar sortu ziren, baita heriotzaren eskudarioak bezalako talde paramilitarrak eta subertsioaren aurkako komando bereziak ere. Araketa eta miaketa masiboak egiten zituzten kolonietan, eskoletan eta unibertsitate nazionalan, migrazioak kontrolatzeko neurriak handitu zituzten; eta sindikatuetako liderren desagertze behartuak ugaritu ziren, beste errepresio ekintza batzuen artean.

Iturria: Salomón (1988: 5-6).

2.2. Desagertze behartuko ereduak

Hondurasko desagertze behartuen aldirik gogorrena 1980ko eta 1990ko hamarkadei dagokie, hain justu, Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren inplementazioa areagotu zenean.

1994an, Leo Valladares Giza Eskubideen Babeserako Mandatari Nazionalak *Los hechos hablan por sí mismos. Informe preliminar sobre los desaparecidos en Honduras 1980-1993* txostena argitaratu zuen. Txostena oso garrantzitsua izan zen; izan ere, erakunde publiko batek desagertze behartuko 179 kasu eta giza eskubideen beste urraketa batzuk onartzen eta dokumentatzen zituen, hala nola atxiloketa ilegalak, torturak eta judizioz kanpoko exekuzioak, bai Hondurasko herritarrenak, bai eskualdeko beste herritar batzuenak. COFADEHk (2018a) txosten espezifiko bat egin zuen Hondurasko desagertze behartuari buruz. Horretatik, zenbait ondorio ateratzen ditugu:

- Erakundeak desagertze behartuko 184 kasu erregistratu zituen 1970ko hamarkada hasieratik 1990ko hamarkada hasierara bitartean, horien artean 25 emakumerenak. Dena den, benetako kopurua handiagoa omen da, desagertze asko ez baitira salatzen.
- Biktimak, oro har, "arriskutsuak" ziren Estatuaren segurtasunerako; izan ere, sindikatueta, ikasleen mugimenduetako eta alderdi politikoetako kideak, nekazariak, abokatuak, irakasleak, edo elkartasun taldeetako eta talde erlijiosoetako kideak ziren.
- SNDaren aldirian, hau da 1980tik 1995era bitartean, hainbat egitura sortu ziren, hala nola heriotzaren eskudroiak, 3-16 Inteligentzia Batailoia, Subertsioari aurre egiteko Batailoia Arina, Subertsioaren Aurkako Operazio Talde Bereziak, Mendi Eskola eta Lurralde Indarrak. Desagertze behartuen egile nagusiak Estatuko segurtasun indarren baitan sortutako heriotzaren eskudroiak izan ziren. Eskudroiek AEBen eta Israelen finantziak eta trebakuntza eta Argentinako indar militarren aholkularitza zuten, baita poliziaren eta Estatuko segurtasun zerbitzuen laguntza ere. Azken horiek gainera, Nikaraguako matxinoen aurkako indar paramilitarrek "los contras" izenez ezagutzen direnak ere aritzen ziren.
- Estatuaren egituren *modu operandi* edo jardunbideen parte gisa, biktimak, maiz, zelatatuak eta jarraituak izaten ziren denboraldi luzez eta modu sistemikoetan. Bahiketan, begiak lotailuz estaltzen zituzten eta legez kontrako atxiloketa-gune sekretuetara eta alde batetik bestera eramaten zituzten. Han tortura desberdinak jasaten zituzten. Honako hauek dokumentatu dira: shock elektrikoak, sexu-bortxaketak, elikagairik eta urik ez ematea, isolamendua, benda itsugarriak, kaputxak jartzea, txakurrak erabiltzea, ur fekaletan sartzea, sudurretik likidoak hartzea behartzea, zintzilikatzea, denbora luzez biluzik egotera behartzea, beste atxilotu batzuk torturatzea behartzea, exekuzioa simulatzea eta senideak bahitzeko mehatxuak. Biktima gehienak exekutatuak izan ziren, eta beren gorpuak hilerri klandestinoetan lurperatu zituzten.
- Legez kontrako atxiloketetan erabilitako armak agintari militar eta polizialentzat erreserbatutako horiek ziren, eta erabilitako ibilgailuak kristal polarizatuak zituzten, horien erabilerak baimen ofiziala behar duela. Batzuetan, atxiloketak ordena



publikoko agenteek egin zituzten, inolako disimulurik gabe. Beste batzuetan, bahiketa egiteko, aurretik jendez hustu egiten zuten tokia. Agintariek sistematikoki ezkutatzen zuten atxiloketa eta biktimen kokapena, bai senideei, bai giza eskubideen erakundeei eta baita Erakusketa Pertsonaleko Baliabideen (habeas corpus) epaile betearazleari ere.

- SNDaren aldia, inoiz ez zen biktimen berri izaten. Zenbait kasutan, gorpuak agertu ziren, tortura zantzuekin, eta hain mutilatuta, non ezinezkoa baitzen haiek identifikatzea.

3. Giza eskubideen urraketak 2009ko Estatu-kolpean eta 2017ko hauteskunde osteko krisian

2009ko ekainaren 28an, Manuel Zelaya presidente hautetsia kargutik kendu eta herrialdetik kanporatu zuten, Indar Armatuak egindako estatu-kolpe baten ondorioz. Herritarrek kaleak hartu zituzten protestatzeko eta presidenteren itzulera eskatzeko. Hala, FNRP Herri Erresistentziaren Fronte Nazionala osatu zen. Agintariek bortizki erreprimitu zituzten manifestazioak. Hasieran masiboa eta orokorra zen kriminalizazioa, egunak igaro ahala, selektibo edo zuzendu bilakatu zen, “desegonkortzaile” giza kalifikatutako pertsonen aurka.

Errepresio aldi horrek 2015era arte iraun zuen, eta desagertze behartua aurkarien kontrako praktika bihurtu zen Estatuarentzat. COFADEHK indarrez atxilotutako-desagertutako 13 pertsona erregistratu zituen, horien artean, giza eskubideen defendatzaileak, erresistentziak aktiboan zeuden pertsonak, eta bereziki liderrak edo FNRPren koordinazioaren arduradunak, edo erakundeari laguntzea leporatzen zitzaizen pertsonak.

Errepresio militarrek eragin handia izan zuen Feministas en Resistencia kolektiboan parte hartzen zuten emakumeengan. Kolektiboa estatu-kolpearen egun berean sortu zen, eta geroago FNRPekin bat egin zuen. Kolpearen ostean, Hondurasko emakumeen eta feministen erakundeek Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordearen aurrean salatu zituzten protestan parte hartu zuten emakumeen aurkako sexu-indarkeria, atxiloteta ilegalak, kolpeak, irainak eta hilketak (Colectivo MIRA, 2019). Hurrengo urteetan, hain zuzen ere, 2012tik 2017ra bitartean, IM-Defensoras erakundeak (2019) 1799 eraso erregistratu zituen Hondurasen giza eskubideen eta ingurumenaren defentsan aritzen ziren emakumeen aurka. Emakume horietako 14 hil egin zituzten, horien artean Berta Cáceres.

2010ean, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea sortu zen, Porfirio Lobo Sosa presidentearen aginduz, kolpearen aurretik eta ondoren gertatutakoa argitzeko. Batzordeak *Para que los hechos no se repitan* (2011) txostena argitaratu zuen. Txostenak hainbat neurri gomendatzen zituen, besteak beste, “2009ko ekainaren 28tik 2010eko urtarrilaren 27ra bitartean egindako giza eskubideen urraketa guztiak ikertzea, prozesatzea eta zigortzea” (CVR, 2011: 405); baina testuinguru horretan desagertu zituzten 13 lagunek desagertuta jarraitzen dute eta kasuek zigorrik gabe jarraitzen dute. Are gehiago, biktimen senideen aurkako jazarpena eta mehatxuak ere izan dira, desagertuak bizirik agertzea eta justizia eskatzeagatik.

Egiaren Batzorde ofizialak sortutako mesfidantza dela eta, 2010ean, gizarte zibileko hainbat erakundek, Giza Eskubideen Plataforman bilduta, Egiaren Batzorde paralelo bat (CdV) sortu zuten. Hark *La voz más autorizada es la de las víctimas* txostena egin zuen, Estatuak kolpearen ostean egindako giza eskubideen urraketari dagozkion 2000 salaketatan oinarrituta (CdV, 2012).


Egoera aldatu beharrea, 2017ko hauteskunde-iruzurraren ostean indarkeria politikoa larriagotu egin zen. Izan ere, iruzurrak bigarren agintaldia eman zion Juan Orlando Hernándezi, eta hark iruzurraren aurkako protestak erreprimitu zituen. Hala, 1.085 pertsona atxilotu, 232 zauritu, 30 hil eta bat desagertu zituzten, beste hainbat ondorioren artean (COFADEH, 2018b).

2. taula. Hondurasko giza eskubideen urraketa larriei lotutako Egiaren Batzordeak	
<p>Giza Eskubideen Mandatari Nazionala.</p> <p>Txostena: <i>Los hechos hablan por sí mismos. Informe preliminar sobre desaparecidos en Honduras 1980-1993</i> (1994)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuak bultzatua. • 1980tik 1993ra bitartean gertatutako desagertze behartuko 179 kasu dokumentatu zituen. • Desagertze behartuak ez ziren gertakari bakanak izan, baizik eta krimen errepikatuak, bai kopuruari eta bai ezaugarri dagokienez. • Desagertzeen erantzuleak Estatuko egiturak izan ziren (batez ere Indar Armatuak), eta gelditasuna eta estalketa egon zen botere judizialaren eskutik.
<p>Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea (CVR, 2010)</p> <p>Txostena: <i>Para que los hechos no se repitan</i> (2011).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Estatuak bultzatua. • Helburuak: 2009ko ekainaren 28aren aurretik eta ondoren Hondurasen gertatutakoa argitzea, hain zuzen ere, krisi-egoera eragin zuten ekintzak identifikatzeko eta etorkizunean gertakari horiek errepika daitezen ekiditeko elementuak emateko. • Giza eskubideen urraketan 250 biktimari egindako elkarrizketak aipatzen ditu, baita beste "eragile nagusi" eta informazio-iturri batzuk ere. • Ez errepikatzeko neurrien artean, ezartzen du Estatuak giza eskubideen urraketa guztiak ikertu, prozesatu eta zigortu behar dituela.
<p>Egiaren Batzordea (CdV).</p> <p>Txostena: <i>La voz más autorizada es la de las víctimas</i> (2012)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte zibileko erakundeek osatutako Giza Eskubideen Plataformak bultzatua. • Helburuak: Estatu kolpearekin lotutako gertakariak eta horien aurrekari sozialak argitzea; biktimentzat eta senideentzat justizia eta erreparazio morala eta materiala lortzea giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketengatik eta botere abusuengatik. • Batzordeak 1966 salaketa jaso zituen giza eskubideen urraketengatik. Horiek Estatuaren hainbat instantziaren eskutik etorri ziren, eta % 30 segurtasun pertsonalaren urraketak izan ziren

Iturria: egileak, honako hauetan oinarrituta: CONADEH (2002 [1994]), CVR (2011) eta CdV (2012).

Estatu-kolpearen eta 2017ko hauteskunde osteko krisiaren ondorengo urteetan, "larriagotu egin dira erakundeen endekapena, Estatuaren kooptazioa krimen antolatuaren eskutik (batez ere narkotrafikoari lotuta), militarizazioaren areagotzea, lege eta politika autoritarioak (oinarriko eskubideetan eta askatasunetan atzerapen handia ekartzen dutenak, hala nola, adierazpen, zirkulazio, manifestazio eta informazio askatasunetan), fundamentalismo erlijiosoak, ustelkeria politikoa eta indarkeriaren eta segurtasunik ezaren orokortzea. Hori guztia erantzuleen inpunitate osoaz, haiek babesten dituzten legeak onartu dituztelako" (Mendia Azkue, 2022: 49).

Testuinguru horretan, 2021eko azaroko hauteskundeetan Xiomara Castro atera zen presidente, eta horrek aldaketarako itxaropena piztu zuen gizarte zibileko hainbat erakundeetan, hain zuzen ere, zigorgabetasunaren aurkako borrokan eta Estatuaren indarkeriaren biktimen eskubideen aintzatespenaren arloan aurrerapenak izango zirelako itxaropena.



4. Zigorgabetasunezko eta militarizazioko historia

Hondurasen ez dira aurrerapen handiak izan egia, justizia eta erreparazio eskubideen eta ez errepikatzeko bermeen arloan. 1980ko hamarkadako kasuek eta 2009ko estatu-kolpeko eta 2017ko hauteskunde osteko krisiko kasuek ez dute aurrerapenik izan beren ikerketan eta judizializazioan, eta zigorrik gabe jarraitzen dute.

1980ko eta 1990ko hamarkadetan gertatutako giza eskubideen urraketei dagokienez, hiru amnistia-dekreturen (1987, 1990 eta 1991) bitartez bermatu zuten Estatuaren krimenen zigorgabetasuna. Dokumentatutako 184 desagertze behartuetarik bost kasutan bakarrik erabili da ekintza penala, baina akusatuak aske geratu dira eta espedienteak geldirik jarraitzen dute. 2009ko estatu kolpeari dagozkion krimenen kasuan, Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen gomendioak (2010) ez dira oraindik bete. Batzordearen Gomendioei Jarraipena emateko Unitateak 2013an argitaratutako azken txostenaren arabera, une horretan, 84 gomendioetatik 37 bakarrik betetzen ziren, 32 betetzeko prozesuan zeuden eta beste 15etan ez zen inolako ekintzarik egin (USCVR, 2013: 37).

Desagertze Behartuei edo Borondatez Kontrakoei buruzko Nazio Batuen Lantaldeak (2023), Hondurasera egindako bisita ofizialaren ondoren, adierazi egin zuen 1993an eta 2011 argitaratutako txostenetan (*Los hechos hablan por sí mismos* eta *Para que los hechos no se repitan*, hurrenez hurren) egindako gomendio gehienek inplementatu gabe jarraitzen zutela, eta giza eskubideen urraketa larriak gertatzen ari zirela artean ere. Halaber, Lantaldeak (2023: 5) garrantzi handiko beste alderdi batzuk aipatu zituen:

- Ez dago desagertutako pertsonak bilatzeko politika publikorik; ondorioz, biktimen familiak ezin izan dituzte beren senideak aurkitu.
- SNDaren testuinguruan desagertze behartuak hasi zirenetik 40 urte baino gehiagora, ez dago biktimen erregistro bateraturik, ez 1980ko hamarkadako kasuena, ez gaur egungo kasuena. Beraz, ez dago arazoaren tamaina zehatz ezagutzea ahalbidetzen duen estatistika ofizialik. Horrek, bada, arazoari erantzuteko eraginkorrak diren politikak egitea oztopatzen du.
- Ez da senideen bila dauden familien datu-base genetikorik egin. Hortaz, Estatuak, desagertu baten gorpuzkiak aurkitzekotan, ez dauka informazio genetiko hori gurutzatzeko aukerarik. Halaber, ez dago identifikatu gabeko gorpuzkien erregistrorik edo datu-baserik, eta ez dago argi horiek non gordetzen diren.

Zigorgabetasunaren aurkako borrokan aurrera egin beharrean, Estatuaren militarizazioaren bidean jarraitu dute Hondurasen. Hala, Indar Armatuek botere handia dute eta erakundeak kontrolatzen dituzte. 2018-2022 aldian, Honduras Erdialdeko Amerikako gasturik handiena izan zuen defentsan, hain zuzen ere, 1,989.02 milioi dolarrekoa, eskualdeko osoko gastuaren % 42,4 (Expediente Público, 2023). Xiomara Castrok gizartea desmilitarizatzea agindu zuen

hauteskunde-kanpainan, baina 2023an, gobernuak 440,74 milioi dolar bideratu zituen Defentsako Idazkaritzara. Kopuru horrek gora egin zuen 2024an, 483 milioira arte; eta 2025. urterako % 26,3 handitzea aurreikusten da, 656 milioira arte (López, 2024). Aurrekontu igoera horiez gain, Indar Armatuak neurritz kanpoko eginkizuna hartu dute segurtasun publikoan. Aldi berean, 2021. urterako, segurtasun pribatuko 704 enpresa zeuden erregistratuta (Díaz López, d.g.)¹. Halaber, AEBetako base militarrek daude oraindik ere, adibidez, Bravo Zeregin Bateratuko Indarra, Estatu Batuetako Hegoaldeko Komandoaren agindupean dagoena eta 500 soldadu estatubatuar eta beste 500 zibil hondurastar eta estatubatuar dituen².

2022ko azaroaren 24an, presidentek Segurtasuneko Larrialdi Nazionala deklaratu zuen herrialde osoan, eta, horren bitartez, askatasun pertsonaleko eskubideak kendu zituen, hala nola, elkartzeko, batzartzeko eta zirkulatzeko askatasuna. Gainera, polizia militarrek herritarren segurtasuneko lanak egiten ditu, horien artean atxiloketak eta etxeetan indarrez sartzea. Desagertze Behartuei edo Borondatez Kontrakoei buruzko Nazio Batuen Lantaldeak (2023: 4), Hondurasen egindako bisitan, "gertatzen ari diren desagertze behartuekin –baita epe laburrekoekin ere– lotutako informazioa" jaso zuen. Horiek, bada, "batez ere, ordenako indarren atxiloketen eta operatiboen testuinguruan ematen ari dira, batez ere auzo marjinalizatueta bizi diren pertsonen aurka, baita adinez txikikoen eta gazteen aurka ere, krimen antolatuen eta narkotrafikoaren aurkako borrokaren testuinguruan". Hala, segurtasunik eza benetako arazo bat bada ere, segurtasun militarizatu horrek giza eskubideen urraketak sustatzen ditu, baita desagertze behartuak ere.

2023ko txostenean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Mandatari Gorenaren Hondurasko Bulegoak giza eskubideen urraketak salatu zituen Estatuko segurtasun indarren eskutik, salbuespen egoeraren inplementazioaren esparruan. Horien artean, desagertze behartuak izan daitezkeen zazpi kasu (sei gizon eta emakume transgenero bat) aurkitzen dira (OACNUDH, 2023).

Datu horiek, biktimen justizia eskubidea ukatzearekin batera, Indar Armatuak duten botere handia eta zigorrik gabe jarraitzeko duten ahalmena erakusten dute, Estatuko beste botere batzuek –esate baterako, epaileek– eta beste botere faktiko batzuek –hala nola elite ekonomikoek eta hedabide jakin batzuek– ezikusia egiten dutelarik.

1 Datu ofizialen arabera, 40.000 guardia daude, baina benetako kopurua 100.000 ingurukoa izan daiteke (Proceso Digital, 2020).

2 <https://www.jtfb.southcom.mil/En-Espa%C3%B1ol>

5. Giza eskubideen mugimenduak sustatutako aurrerapausoak egiaren, justiziaren eta erreparazioaren arloan

Justizia-sistema nazionalan justizia lortzeko zailtasun historikoa ikusita, COFADEHk eta giza eskubideen beste erakunde batzuek Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegira jo dute. Hala, orain arte Hondurasko Estatuaren aurkako lau epai lortu dituzte (1988, 1989, 2003, 2022) desagertze behartuko eta judizioz kanpoko hilketako krimenengatik³.

Biktinek eta giza eskubideen erakundeek sustatutako ekimenei esker, martxoaren 24a Egia, memoria eta justizia Eskubidearen Egun Nazional izendatzea lortu da, 22-2022 Dekretuaren bitartez. Dekretuaren bost artikuluetan, biktimak aintzatesteko, gizartearen memoria kolektiboa finkatzeko eta autoritarismo mota guztiak arbuiatzeko ekintzak aurkitzen dira.

Are garrantzitsuago, 2024an, COFADEHk⁴ Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren ondorioz Hondurasen gertatutako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimen Lege proposamena aurkeztu zuen Kongresu Nazionalan. Hura nobedade bat da Hondurasko legerian eta herrialdeko justizia-sistema osoan.

Legearen helburua, bada, biktimak duintzea eta horien egia, justizia eta erreparazio eskubideak bermatzea eta ez errepikatzeko bermeak ematea da. Lege proposamenak nazioarteko estandarren arabera definitzen ditu biktimak. Haren arabera, biktimak dira biktima zuzenaren familia hurbila edo haren kargu dauden pertsonak ere, baita arriskuan dauden pertsonen laguntzeko edo horien biktimizazioa eragozteko esku hartzean kalteak jasan dituzten horiek ere.

Arau horren arabera, beraz, legearen onuradunak dira SNDaren aplikazioaren esparruan desagertze behartua, homizidioa, tortura eta bete tratu krudel, anker edo apalesgarriak, eta sexu-indarkeria jasan duten pertsona guztiak (COFADEH, 2024).

3 Honako hauek dira: Velásquez Rodríguez Vs. Honduras (1988), Godínez Cruz Vs. Honduras (1989), Juan Humberto Sánchez Vs. Honduras (2003) eta Herminio Deras y otros Vs. Honduras (2022).

4 Erakundeak Nazio Batuen Giza Eskubideen Mandatari Gorenaren Hondurasko Bulegoaren (OACNUDH), Argentinako hainbat erakundek osatutako Memoria Abierta aliantzaren (giza eskubideen urraketei buruzko memoria sustatzen duena) eta estatu-mailako beste erakunde batzuen laguntza teknikoa izan zuen, baita biktimen partaidetza ere.

3. taula. Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren ondorioz Hondurasen gertatutako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimen Lege proposamenaren oinarriak

Egia eta memoria eskubidea	Giza eskubideen urraketa larrien kasuan gertatutakoari buruzko egia ezagutzeko eskubidea, eskubide autonomo, preskribaezin eta besterenezin gisa. Estatuak memoriako politika publikoak formulatzeko eta inplementatzeko eginkizuna du, baita memoria historikoaren artxiboak eta guneak gordetzeko beharra ere.
Justizia eskubidea	Justiziarako sarbide indibidualerako eskubidea aitortzen du, baita biktimei salaketak egitea eta jasandako kalteगतिक erreparazioa jasotzea (kolektiboak ere) ahalbidetzen dieten prozedurak garatzeko beharra ere.
Erreparazio eskubidea	Neurri horiek erreparazioaren lau dimentsioei dagozkie: leheneratzea, kalte-ordainketa, errehabilitazioa eta gogobetetzea. Horiek bide judizialek edo administratibotik eman daitezke.
Ez errepikatzeko bermeak	Gertatutakoa herrialdearen orainean edo etorkizunean errepikatuko ez dela bermatzen duten egiturazko neurriei dagozkie.

Iturria: COFADEH, 2024.

Honako hauek dira Legek hartzen dituen jarduketa-ardatz nabarmenenak:

- Giza eskubideen urraketa larrien kasuen ikerketan eta judizializazioan espezializatutako erakundeak sortzea eta indartzea.
- Bortxaz desagertutako pertsonen gorpuzkiak bilatzeko, aurkitzeko, berreskuratzeko eta identifikatzeko eta horiek duintasunez itzultzeko mekanismoak sortzea.
- Biktimen eta giza eskubideen erakundeek egia, justizia era erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak lortzeko prozesuetan parte hartzea.
- Memoria historikoa hezkuntza curriculumean sartzea, erreparazio neurri gisa eta Hondurasko gizarteak urte horietan gertatutakoa ezagutzeko duen eskubide kolektibo gisa, horiek berriz errepika ez daitezen.



6. Ondorioak

2022tik, Hondurasen, elkarrizketa gehiago dago gobernuaren eta giza eskubideen aldeko erakundeen artean, baina 1980tik Estatuak egindako krimenei buruzko egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agenda gauzatzeko dago oraindik. Bereziki, desagertze behartua Estatuak berak zein biktimek eta gizarte zibileko erakundeek egindako hainbat txostenetan dokumentatutako krimena da.

Ikusi dugun bezala, Hondurasen inpunitatea da nagusi, eta Estatuak ez du azken urteotako indarkeria politikoaren larritasunaren neurriko politika publikorik sustatu giza eskubideen arloan. Aitzitik, 1980ko eta 1990ko hamarkadetako errepresioaren ondoren indarkeria-ziklo berriak izan dira, 2009ko estatu-kolpearen eta 2017ko hauteskunde-iruzurraren ondorioz. Horiek giza eskubideen urraketa berriak ekarri dituzte, eta, horien artean, desagertze behartuak ere.

Giza eskubideen politika publiko bat sustatu beharrean, Hondurasko aurrekontu militarrik gora egin du azken urteotan, eta Erdialdeko Amerikako handiena da orain. Giza eskubideen aldeko erakundeen ustez, herrialdearen militarizazio historikoa eta haur egungoa arrisku-faktore nagusi bat da. Aurreko hamarkadetan bezala, inposatutako segurtasun militarizatuaren ikuspegiak botere militarren menpe jartzen du botere zibila, eta giza eskubideen urraketak bultzatzen ditu.

Horren aurrean, biktimen eta giza eskubideen erakundeak dira giza eskubideen eta memoriaren arloan lortutako aurrerapenaren eragileak eta protagonistak. Haien ahaleginaren emaitza gisa, 2024an Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren ondorioz Hondurasen gertatutako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimen Lege proposamena aurkeztu zen Kongresu Nazionalan.

Legearen onarpena bere inplementazio-prozesu konplexuaren lehen etapa izango litzateke. Izan ere, inplementaziorako beharrezkoa izango da nazio-mailako eragile guztien partaidetza zuzen eta arduratsua, batez ere biktimena eta haien senideena, baita prozesu horretan parte hartu duten giza eskubideen erakundeena ere. Halaber, ezinbestekoa da erakundeen, justizia-sistemaren, Kongresu Nazionalaren eta hedabideen parte hartzea ere. Nolanahi ere, biktimak eta giza eskubideen erakundeak ahalegin handia egiten ari diren arren, legea ez da oraindik onartu.

7. Bibliografía

- COFADEH (2018a). *Informe desaparición forzada en Honduras*, Tegucigalpa.
https://soaw.org/wp-content/uploads/2020/05/2018-Informe-Desaparici%C3%B3n-Forzada-en-Honduras_cofadeh.pdf
- COFADEH (2018b). *Violaciones a los Derechos Humanos en el contexto de las protestas anti fraude en Honduras*, 2. txostena, urtarrilaren 10a.
<https://www.derechos.org/nizkor/honduras/doc/elecciones46.html>
- COFADEH (2024). "COFADEH presenta proyecto de ley ante el pleno del Congreso Nacional". *Defensores en línea.com*, apirilaren 5a.
<https://www.defensoresenlinea.com/cofadeh-presenta-proyecto-de-ley-ante-el-pleno-del-congreso-nacional/>
- Colectivo MIRA (2009). *Audiencia sobre la situación de los derechos de las mujeres en Honduras en el marco del golpe de Estado*, azaroaren 19a.
<https://www.americas.org/es/6586/>
- Desagertze Behartuei edo Borondatez Kontrakoei buruzko Lantaldea (2023). *Informe del Grupo de Trabajo sobre las Desapariciones Forzadas o Involuntarias acerca de su visita a Honduras*. Giza Eskubideen Batzordea, Nazio Batuen Batzar Orokorra, A/HRC/54/22/Add.2.
<https://docs.un.org/es/A/HRC/54/22/add.2>
- Díaz López, Leyla Elisa (d.g.). *La seguridad privada en Honduras*, IEPADES eta DCAF-Geneva Centre for Security Sector Governance.
<https://www.dcaf.ch/sites/default/files/publications/documents/NorthernTriangle-sec-HONDURAS.pdf>
- Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (CVR) (2011). *Para que los hechos no se repitan. Informe de la Comisión de la Verdad y la Reconciliación*, I, San José, Costa Rica.
<https://honduras-forum.ch/wp-content/uploads/2013/09/TOMO-I-FINAL-Para-que-los-hechos-no-se-repitan-Informe-de-la-CVR-Kopie.pdf>
- Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen gomendioen Jarraipenerako Unitatea (2013). *Segundo informe de estado de cumplimiento de las recomendaciones de la Comisión de la Verdad y la Reconciliación*. Tegucigalpa. https://www.ohchr.org/sites/default/files/lib-docs/HRBodies/UPR/Documents/Session22/HN/A_HRC_WG.6_22_HND_1_Honduras_Annex2_S.pdf
- Egiaren Batzordea (CdV) (2012). *La voz más autorizada es la de las víctimas*, Tegucigalpa, Honduras.
<https://derechosdelamujer.org/documentos/informe-de-la-comision-de-verdad-la-voz-mas-autorizada-es-la-de-las-victimas>

- Expediente Público (2023). *¿En qué gastaron 22 mil millones de dólares Guatemala, El Salvador, Honduras y Nicaragua?*, azaroaren 27a.
<https://www.expedientepublico.org/en-que-gastaron-22-mil-millones-de-dolares-paises-de-centroamerica>
- Giza Eskubideen Mandatari Nazionala (2002). *Los hechos hablan por sí mismos. Informe preliminar sobre los desaparecidos de Honduras 1980-1993*, 2. edizioa (1. edizioa 1994koa). Tegucigalpa (Honduras): Editorial Guaymuras.
http://www.dhnet.org.br/verdade/mundo/honduras/tnm_honduras_los_hechos_hablan_por_si_mismos.pdf
- IM-Defensoras (2019). *Honduras: a 10 años del Golpe de Estado*, Infografía, ekainaren 24a.
<https://im-defensoras.org/public/7r7p5e88hguzf9ab90n9l2gzib1v/INFOGRAFIA-HONDURASS-24062019-HR-okok.pdf>
- López, Alberto (2024). "Honduras planea un presupuesto para Defensa de 656 millones de dólares en 2025", *infodefensa.com*, abuztuaren 31.
<https://www.infodefensa.com/texto-diario/mostrar/4967944/honduras-busca-presupuesto-defensa-656-millones-dolares-2025>
- Mendia Azkue, Irantzu (2022). "Represión y necesidades de apoyo psicosocial de organizaciones defensoras de los derechos humanos en Honduras", in Mendia Azkue, Irantzu (ed.). *Violencias, impactos y atención psicosocial en el trabajo de derechos humanos en conflictos armados*. Bilbo: Hegoa institutua (UPV/EHU) (45-72).
<https://biblioteca.hegoa.ehu.eus/registros/21630>
- OACNUDH (2024). *Informe sobre la situación de los Derechos Humanos en Honduras 2023*.
https://oacnudh.hn/wp-content/uploads/2024/03/Informe-OACNUDH-2023_19.03.2024.pdf
- Proceso Digital (2020). "Urge regulación para 100 mil hombres armados", urriaren 13a.
<https://proceso.hn/urge-regulacion-para-100-mil-hombres-armados>
- Salomón, Leticia (1988). *La Doctrina de la Seguridad Nacional. Análisis de la caída del General Gustavo Álvarez Martínez*, 33. Buletin Berezia, CEDOH Hondurasko Dokumentazio Zentroa, otsaila.
http://www.cedoh.org/Biblioteca_CEDOH/archivos/00954%20CEDOH%20BOLETIN%20ESPECIAL%20FEBRERO%201988%20No%2033.pdf
- Velásquez Rivera, Edgar (2002). "Historia de la Doctrina de la Seguridad Nacional", *Convergencia. Revista de Ciencias Sociales*, 9(27): 11-39.
<https://www.redalyc.org/pdf/105/10502701.pdf>



INPUNITATE GEHIAGORIKEZ